

«Snorkel»

Itzea Urkizu
Arsuaga

Uretatik irten eta eguzkitan lehortu. Ba al da sentsazio hobetik? Mediterraneoko hondartzan batean nago, etxe eta ontzi zuriek inguratzen naute, eta iritzi zutabe hau josteko ideiak biltzeari ekin behar diodala erabaki dut.

Aldamenean haur bat, bainujantzia nola-hala atondu nahian; ur ertzean bikote bat musuka; eta, atzerago, neskato bat leiho erraldoi diruditen *snorkel* egiteko antiojoak jantzita. Ezinbestean, pentsatu dut *snorkel* egitearena izan litekeela testuari –eta nire oporrei– heltzeko metafora bat; asteko zein egun den ez dakizunean exijitu daitekeen

metaforen mailan, noski. Depilazioaren, gorputz idealen eta norbere borroka politikoaren arteko talkaren motxilarakin batera, hori ere izaten baita uda: burua izatea denbora existitzen ez den mundu paralelo batean, baina hodi bat izatea, beti, errutinaren kea etengabe arnasteko.

Eta horrela, *snorkel* eginez, ozpindu naiz New Yorkeko zine zuzendariari gipuzkoarron hiriburuan miazkatu dioten alfonbra gorriarekin. Eta hiri horretako ordezkari politikoei aste berean aurkeztu duten kanpainarekin: indarkeria matxistaren aurkakoa omen den baina indarkeria linguistikoa betiko-

tzen duenarekin. Petraldu naiz, aktore-kazetari eztabaidatik, feminismo ona eta txarra hizpidera eramane zituen protagonistetako batek zine zuzendari hori publikoki txalotu duelako. Bai, bere alabaordea bortxatzen zuen hori bera. Eta Manresa, eta enegarren “Manada”, eta Iruñea, eta udarik ez duen patriarkatu hilkorra.

Banoa segituan hondartza ertzeko dendara, *snorkel* egiteko betaurreko batzuen bila. Gure plastiko eta hondakinek uzten badidate behintzat, arnasari eutsiko diot segundo batzuez, denbora existitzen ez den urpeko mundu horretan. •

Bortxatzaileen defendatzailea, sexu irakasle

Koldo Sagasti

Cadizeko Unibertsitateak erretiratu egin du Agustin Martinez Berra legelariaren hitzaldia udako ikastaroetako mintegi batetik. “La Manada” izeneko sexu erasotzaileen taldeko kideen defentsako abokatua sexualitateari buruzko mahai inguru batean zen parte hartzekoa, aditu moduan; eta azken orduan norbaitek, auzo lotsaz-edo, erabaki du bere mintzaldia egitarautik kentzea.

Polemikaren iturria, baina, zera izan da, nor izan ote den letraduaren parte hartzea zentsuratu duena, unibertsitateko errektorea ala Madrilgo Gobernuako ministroen bat. Ez da falta izan, gainera, legegizona defendatu duenik, argu-

diatuz ezin zaiola betorik jarri bere jardun profesionalagatik, zuzenbide estatu batean bortxatzaileek ere defentsa legalerako eskubidea dutela. Ez dut ukatuko inputatu orok lege babesa behar duenik, baina Martinez baliogabetzen duena ez da legelari lanetan aritu izana, baizik eta bortxatzaileen defentsarako baliatutako estrategia. Sexu erasotzaileen defendatzaileak biktimaren sinesgarritasuna kokolan jartzean oinarritu du bere defentsa estrategia. Telebista kate batetik bestera ibili da bortxatua larrutzen, epaiketaren jomugan jartzen. Argudiatu izan du neskaren jarrera probokatzailea izan zela, eta bortxaketaren ondoren bere bizimodua birbideratzen saiatu iza-

nak bere testigantza indargabetzen duela. Funtsean, biktima bilakatu nahi izan du pairatutako erasoaren errudun; bigarren aldiz bortxatu.

Martinez terrorismo matxistaren gorazarre egiten ibili da hedabide guztietan, eta horrek ezgaitu egin beharko luke edozein jardura publikorako; areago apestatu bihurtu beharko luke. Polemikaren gakoak, berriz, ez luke izan behar nork jarri dion betoa letraduari; baizik eta unibertsitatean, jakinduriaren tenpluan, nor izan ote den sexualitateari buruzko mintegi batean bortxaketaren apologeta baten lekukotasuna interesgarria izan zitekeela okurritu zaion txoriburua. •